



Melanomen metastasiak

Azalean azaltzen zaigun kolore ilunaren erantzule melanozitoak dira. Zelula hauek azaleko zelulek daramaten pigmentua, melanina, ekoizten dute. Maiz, zelula hauek azaleko area txikitan kontzentratzen dira *nevus*-a, hau da, orina, eratuz. Orinak batzuetan handiagotu egiten dira eta orduan kezagarri bihurtzen dira, bertotik *melanoma*, hau da, minbizia, sor daitekeelako.

Azken urteotan minbiziaren tratamenduan aurrerakuntza ugari egin da, gaixoen biziraupena luzatuz eta kasu askotan gaixoa guztiz osatuz. Baina minbizi-mota asko dago, batzuk larriagoak besteak baino, eta ez hori bakarrik, minbizia diagnostikatzen den unearan arabera tumore-mota berberak portaera ezberdinak izan ditzake; garaiz diagnostikatzearen garrantzia hemen datza.

Maizen azaltzen den tumoreetako bat melanoma da eta, bestelako neoplasia gaiztoetan bezala, pronostikoa gaiztotzen duen *metastasi*en portaera sumagaitza izan ohi dute, eta honen kontra, ez dago ez diagnosirako eta ez terapiarako metodo eraginkorrik. Tumorea lehenengo aldiz diagnostikatzen denerako gorputzean zehar barreiatu egon daiteke jada, eta naiz eta lehenengoko lesioa osatu, gorputzeko beste txokoren batean azal daiteke askotan zorigaitzoko metastasia sortuz; azken finean, metastasiak izaten dira gaixoa akabatzen dutenak.

Minbizia ikertzean, medikuntzak hainbat ikuspegi erabiltzen ditu, ikuspegi hauetariko bat tumorearen biologia aztertzea da, hau da, tumorea osatzen duten zelulen portaera.

Arlo hau jorratzen du Vidal Vanaclocha doktoreak gidatzen duen taldeak. Eta arlo honetan, batez ere, melanomen metastasiaren garapenean garrantzia izan dezaketen faktoreak ere bai. Melanoma osatzen duten zelulek metastasia eratzeko zenbait trebetasun izan behar dituzte: lehenengo eta behin, tumoretik irteteko gaitasuna, zirkulazioan, linfa edota odol-zirkulazioan, irauteko gaitasuna, metastasia emango duen lekura heltzekoa, eta bertan garatzekoa. Prozesu hauetan izaten diren zenbait fenomeno aztertzen ditu ikerketak:

- metastasi-zelulak gibekeko sinusoidetako endoteliora itsasteko. Tumoreetako zelulek odol-hodietatik barreiatzen direnean maiz gibekeko odol-hodi txikienetan, *sinusoidetan*, geratu egiten dira eta bertan metastasia sortzen dute.
- jatorria gibelean duten oxigenoaren metabolito aktiboen aurrean metastasi-zelulek duten erresistentzia. Gibekeko zenbait zelulak ur oxigenatua eta bestelako gai oxigenatu aktiboak ekoiz ditzakete, eta hauek zelulak hiltzeko gai dira.
- metastasi-zelulen migrazioa eta inbasioa. Tumoreetako zelulek, metastasia sortzeko, higitzeko gaitasuna izan behar dute.
- neoangiogenesis gibekeko metastasietan. Tumoreek, bertako zelulek, iraun behar badute elikagaiak behar dituzte, eta hauek odoletik datoz. Beraz, tumore-ehuna hazten den heinean inguruko ehunetan dauden odol-hodiak tumorearentzako hodi berriak (neoangiogenesis) eman behar dituzte.
- *interleukina-1*-aren erregulazioaren (transkripzioan eta transkripzioaren ondoren) efektua B16 melanomak duen gibekeko metastasi-ahalmenean. Zelulen arteko komunikazioa beharrezkoa da bizirik irauteko. Zelulek, beste mekanismoak beste, molekula bereziak erabiltzen dituzte elkarri mezuak igortzeko, hauetako batzuk interleukinak dira, eta hauetakoa da *interleukina-1*-a.

Ikuspegi biologikoa aztertzerakoan kontuan hartzen dira, alde batetik tumoreko zelulak (hauen kaltegarritasuna) eta bestetik tumorearen inguruan dauden zelulak. Tumorearen inguruan edo bere baitan dauden zelula normalak, batzuetan tumorearentzako mesedegarri izan daitezke. Beste batzuetan tumoreko zelulak akabatzeko gai dira. Tumoreen biologia aztertzea oinarritzkoa da hauen kontrako estrategiak diseinatzeko, eta horretan dihardu ikerketa-talde honek.



Joseba Bidaurrezaga Van-dierdock Dk.

XProiektuaren izenburua: Melanomen gibekeko metastasi esperimentalen bitartekari molekularren azterketa.

XProiektuaren helburua: Melanoma-zelulen metastasietan molekula itsaskorrek, faktore kimiotaktikoek eta, batez ere, hanturaren bitartekariak duten eginkizuna argitzea.

XZuzendaria: F. Vidal Vanaclocha

XLan-taldea: J. Bidaurrezaga, J. Anasagasti, L. Mendoza, J. Martín, M. García

XSaila: Biologia Zelularra eta Morfologi Zientziak

XFakultatea: Medikuntza eta Odontologia

Bidaurrezaga



Sagu-gibel honetan ongi nabari dira saguaren heriotza eragin zuten melanomen metastasiak (zati ilunak).